



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




adats ile luze multzoa	...eraman dezagun farora eta ikus dezagun ipar haizeak aurpegian nola jotzen duen, haizea bere adatsetik nola sartzen den.	136
agiraka egin errieta egin, bronka bota	—Eta nola egiten zidan agiraka amak sukaldetik?	165
ahituta agortuta, akituta	Berriz hartu du zigarroa hautsontzitik, baina ahituta dagoela konturatu eta zimurto egin du.	112
aingura itsasontziak euskarria	...eta itsasontziak aingura botatzean gertatzen zaiena gertatu zitzaien beraiei ere.	159
aitatu aipatu	Ametsetan noren izena aitatu duen ezagutzearren, baina ez dio ezer galdetu.	32
aitzaki estakurua	...errekaduak egiteko aitzakia erabiltzen zuen beti...	120
aje mozkor ostea	...senarrari oraindik ez zaiola ajea pasatu.	119
akorde zentzudun	Han ikusi dute, begiak irekita, akorde .	44
ale unitatea	...geratzen ziren loreak harrotu zituen, ale batzuk falta zirela inork nabaritu ez zezan.	49
amu beitarako euskarria	Eta galdera amu bat da, amaren hitzak gordeta dauden kobazulotik atera nahi dizuena.	46
antz itxura, tankera	...hilabete itsasertzera inguratu gabe egon ondoren. Lore zimelduen antza hartu zuen.	86
antzinako aspaldikoa, behinolakoa	—Nor zen, amaren antzinako nobioren bat?	83
arakatu aztertu, ikusmiratu	Alemaniatik etortzen ginen bakoitzean maleta zaharrea nekarren guztia arakatu behar zuen berak...	102
arnasestuka arnasa zailtasunez, hatsanka	...laster Pili agertu da jangelan, Pilarren alaba. Arnasestuka dator.	103
arrakala pitzadura, zirrikitua	Nahiago izan du arrakaletatik irteten joatea dena. Poliki.	13
arretaz artoski, adi-adi	...gaur arte ez baitio argazki horretan agertzen den bere amaren irudiari arretaz begiratu.	126
arrotz ezezaguna	Herri txiki hartatik hiri arrotzetara ...	24
atzamarka egin atzaparka egin	Izen haiek entzute hutsak atzamarka egin dio Nereari eztarrian eta ezin izan du saihestu: begiak malkoz bete zaizkio.	88
bafa arnasaldia bota	Orduan bafa egin du Doloresek. Puzka hasi da.	83
baltsamu lasaigarria	Zein onak diren Nereak izekorekin egiten dituen barreak. Baltsamua da berarentzat izeko. Zaurien ukendua.	42
bare lasai	Germanen begiak piztu egin ziren, bare ematen duen itsasoa bat-batean pizten den bezala...	123
bart aurreko gaua	Bart ez zuen Nereak lanetik bueltan Lewis etxean aurkituko...	23
bat-batean tupustean, kolpean	Begiak itxita zituzten guztiek bat-batean ireki zituzten...	23
begiratu so egin, behatu	...gaur arte ez baitio argazki horretan agertzen den bere amaren irudiari arretaz begiratu .	126
berakatz baratxuria (ajo)	... berakatz usaina hartzen zien haren eskuei...	117




berbetan hizketan, elekan	Berbetan ibili dela. Ametsetan.	81
bits aparra	Ezpainak bitsez Beteta. Pubean ezagutu zituen emakume atzerritar haien edateko modua...	21
blasta luze, erori bezala	Bakarrik dago izeko, blasta botata egongelako sofan.	159
bortizki gogor, indarkeriaz, zakar	Argazkian bortizki sartzen saiatzen ari dela, Izagirre jatetxeko sukaldean hartutako argazkian dauden emakumeei bultzaka...	31
burbuila anpulu, punpuila	...ez dago handik irtengo den burbuilazko iturria gelditzerik.	122
burruntzali salda banatzeko tresna	Haren atzeko aldean irrati zahar bat ikusten da, paretan zintzilikatutako burruntzali eta kazolen ondean.	60
buru-makur triste, goibel	Urkiolamendi itsasontzitik irten zen mutil aurpegi-zurbil eta buru-makur .	109
damutu damu izan, dolu izan	Erredakziora bidean autoko irratia piztu du, pentsatu gabe, automatikoki, baina segituan damutu eta itzali egin du.	94
danbada kolpe zaratatsua	...olatuek harkaitzen kontra jotzean sortzen zituzten danbadak ...	121
danbaka kolpeka	Danbaka dauka bihotza.	89
danbateko kolpearen zarata	Olatuek haitzen kontra sortutako danbatekoak entzun zituen, eta uraren parrastada ondoren.	65
deklarazio adierazpena	Bereziki politikarien deklarazioak sartzeko lekua beharko dutela pentsatu du. Betiko berbak jasotzeko berba hutsalak.	80
dir-dir diz-diz, dirdira	...eskuekin estali zituen begiak dir-dir gorririk ez ikusteko...	15
doministiku eztul kolpea	Argazkien kaxari buelta ematean zabaldu den hautsak doministikuka jarri du.	84
ekidin saihestu, ebitatu	...kontakizuna eten dezakeen edozein mugimendu, hitz edo begirada ekidinez .	121
erantzi arropa kendu	Urgentziaz erantzi ditu arropak.	29
erdipurdiko hala-holakoa	...irakurtzen zituen erdipurdiko liburu haiek kutsatuta zegoen neska hura.	86
erditu umea egin, haurra izan	Eta musu eman dio gero, musu dardartia. Orduan ez izan kakatia esan dio Nereak... Eskerrak zuek ez zaretela erditzen , bestela...	74
ernegu amorrua, amorrazioz	...baina ez maitalearen izena aitatzen den bezala, haserre baino, erneguz .	121
errekadu mandatua, enkargua	Hilabeteen ezin izango zuen errekaduak egitera irten.	85
estropozo egin behaztopatu, tupust egin	Estropozo egin zuen alfonbrearekin ohean etzan aurretik.	93
etsipen desesperazioa	Ingeles-ingelesa da-eta, gizajoa esaten du askotan Nereak, etsipenez .	23
flexo lanpara	... flexo baten pean folioak irakurtzen ari da...	117
galbahe harea-eta bahetzeko tresna	Urre-bilatzaileen galbahean urrea harrien artetik bezala...	32
garraztasun zapore azidoa	...limoia ahoan sartzean bezala, txikitu egin zaizkio begiak, garraztasuna sentitu baitu amaren irudiaren aurrean.	125




garratzu mingostu, samindu	Egunkarian aritu den urte hauetako umiliazio handienak azken urtean bizi izan ditu, beti Fidelen eskutik. Fidel garraztuaren eskutik.	53
gertatu agitu, pasatu	...zorakeria egitera doazenei gertatzen zaien legez...	158
gordintasun larritasuna	...lehen aldia da amaren egoeraren gordintasunaz hain garbi hitz egiten dutena.	133
goroldio leku umeletako belarkara	Urkiolako basoetatik barrena Beltzarekin egindako ibilaldiak etorri zaizkio gogora, eta goroldioaren usaina.	140
hamaika ikusteko jaio gauza asko ikusteko jaio	...filosofoa (...) asko gustatzen zitzaiolako bizitzaren gorabeherez hitz egitea eta <i>hamaika ikusteko jaiok gara,gero!</i> esaldiarekin bukatzea.	61
harriko ontzietarako konketa	...izeko lapikoa garbitzen ari da, harrikoan .	119
hasperen zizpurua, intziria	Urteetan hamaika hasperen eta etsipen sukaldeko amantalean sikatuz...	10
hatz egin azkura kentzeko igurtzia	...eta ondoren buruan hatz egin du boligrafoaren atzeko aldearekin.	151
hozkirri freskura, hotza	...eta ez du hozkirria sentitu nahi.	141
hutsal baliogabea, ergela	Bereziki politikarien deklarazioak sartzeko lekua beharko dutela pentsatu du. Betiko berbak jasotzeko berba hutsalak .	80
igarri hauteman	...ama hitza idazterakoan Maialeni burutik zer pasatzen ote zaion igartzen saiatu da.	130
ikarati beldurbera	Kaian ikusi zuenean Luisa esan zion honek, ahots dardartiarekin, eta Luisak begi ikaratiak igarri zizkion.	109
ikuskatu aztertu, begiratu	Eta orain lurretik metro batera doala ematen du erredakzioko mahai batetik bestera, denek dena ondo egiten duten ikuskatzen balego bezala.	51
infografia informatikan, irudietarako	Orri gehiago beharko dituzte, eztanda egin duen autoaren argazkiak, lekuaren infografia eta politikarien deklarazioak sartu ahal izateko.	80
inguratu hurreratu, hurbildu	...hilabete itsasertzera inguratu gabe egon ondoren. Lore zimelduen antza hartu zuen.	86
izugarritzko demasekoa, itzelezkoa	... izugarritzko logura badu ere, zabal-zabalik mantendu ditu begiak Nereak hari begira.	122
jaiki altxatu	Izeko jaiki egin da berriz.	161
jasan aguantatu, pairatu, sufritu	Ezin jasan . Barru-barruko gauza balitz bezala hartzen du.	94
jipoitu bizkarra berotu, astindu	Edo hiru entzutean, hiru lagun hil edo torturatu edo atxilotu edo jipoituen aurpegiak ikusiko dituen...	95
kalatxori kaioa	Arrain bila dabilen kalatxoriak zerutik itsasoa zeharkatzen duen modura...	12
kamamila landare belarkara	Kamamila taza du mahai gainean, bete-beteta eta hoztuta.	159
kapota Auto irekien sabai toleskorra	Libreta kapotaren gainean jarri eta bertan ari da helbidea apuntatzen.	108
kirats sunde guttiz txarra	Eta benetan berandu heldu zen Lewis, alkoholaren kiratsa zeriola ahotik.	93
kliskatu kliska egin, begiak itxi-ireki	Urduri dago. Begiak kliskatzen ditu eten gabe.	39
kokots aurpegi azpialdeko irtengunea	... kokotsetik heldu eta eskolan zelan ibili zen galdetzen zionean.	117



konorte kordea, zentzua	Amaren eskuari heldu dio Nereak orduan eta, halako batean, iruditu zaio amak konortea berreskuratu duela.	46
konturatu ohartu, jabetu	Berriz hartu du zigarroa hautsontzitik, baina ahituta dagoela konturatu eta zimurto egin du.	112
kopeta bekokia, aurpegi goialdea	Eta beste musu bat eman dio kopetan .	84
kresal gezala, itsasoko gazitasuna	Begirada itsasoa bukatzen zen lerroan jarrita, sakon hartu zuen arnasa. Begiak itxi zituen ondoren, kresalaren usaina hobeto hartzeko.	65
laga utzi	Orduan liburua gau-mahaiaren gainean laga eta sukaldera abiatu da.	18
lanbrotsu lainotsua, difuminatua	Izara batek estalita ikusten ditu, espazio txuri eta lanbrotsu batean.	68
legez bezala, moduan, eran	...zorakeria egitera doazenei gertatzen zaien legez ...	158
libra pisu-neurria, kilo-erdi	Eta, hitz horren pisua neurtuz gero, kilo batekoa izan behar duela pentsatu du Nereak. Bi librakoa , izekok esango lukeen moduan.	45
lisatu zimurrak kendu	Liburua hartu eta orria lisatzen hasi da, eskua haren gainetik pasatuz.	18
lixazko latza, zaildua	...nahiz eta biek itsasoak zigortutako lixazko eskuak izan.	124
loki buruko ezker-eskuin giltzak	Atzamarrak lokietan jarri, begiak itxi eta hasperenka hasi zen afaldu ostean...	24
makulu txanka, laguntzeko makila	Makuluek lagunduta doan gizona, emakume haurduen bat... Horiek ikusi ditu ospitaleko atetik irteten eta sartzen.	56
mantxu besamotza	...eta ziur kontatuko ziola herriko mantxuren baten antzinako konturen bat.	42
mardul potoloa, mamitsua	Anbotora begira, harri zati mardul haien aurrean ozen barreka...	140
marmarka txutxu-mutxuka, ahapeka	...ohean erdi lo dagoen Lewisek zerbait esan dio marmarka , baina ez dio ezer ulertu.	17
masail ahutza, matraila	... masailean sentitu zuen eskuaren jabe ezin baitzen izan berak herriko plazan ezagutu zuen mutil bera...	124
mesfidati fidagaitza	Eta arrantzaleek berean jarraitu zuten, ezer entzun ez balute bezala, aurrean zuten itsasoari mesfidati begiratu.	99
motots moñoa, adatsa	Kokotsa goian, sorbaldak atzean, ile zuria mototsean bilduta.	60
negargura negar egiteko gogo	Ez du ulertzen zergatik jarri den izeko horrela, negargurari eutsi ezinda.	117
oilo-ipurdi azala lastuta	«...polizia-etxetik irteteen kontaktu ziotena gogoratze hutsak oilo-ipurdia jartzen dio gorputz guztiko azalean.	137
olgetan jolasean	...arratsaldeetan Maialenekin olgetan , gauez ipuina irakurtzen.	20
orbel hosto ihartu-eroriak	Ibaiaren indarrak daraman orbela .	88
ortzimuga ostertza, zeru ertza, horizontea	Begirada ortzimugan itsatsita, ez zion ezer erantzun.	35
ospa egin alde egin	Bukatu eta ahalik eta lasterren etxera bueltatzeko gogo du. Besterik ez. Bukatu eta ospa egin .	112
ozpindu garrastu, mindu	...aurpegia ozpintzen zion oroitzapen hura kendu nahian joan zen...	21



pairatu Jasan, nozitu, sufritu	Baina urteen ondoren, hezetasuna, beroa, hotza, ukituak pairatzen ditu armairuak...	82
papar bular goialdea	Gehiago gerturatu da Nerea eta paparrera eraman du eskua.	30
parrastada (ur) txorroztada, piloa	Euri zaparrada balitz bezala. Parrastada burutik behera. Ura begietatik kentzeko denbora barik.	35
pitxer jarroa	...platerak mahai gainean jarri, zopari bueltak eman, pitxerra urez bete.	118
poliki astiro, emeki, patxadaz	Nahiago izan du arrakaletatik irteten joatea dena. Poliki .	13
pozarren poz-pozik	Pozarren irten da erredakziotik.	163
puzka hasi arnasa indarrez bota, ufaka	Orduan bafa egin du Doloresek. Puzka hasi da. Ezin duela sinistu.	83
saihestu ekidin, ebitatu	Izen haiek entzute hutsak atzamarka egin dio Nereari eztarrian eta ezin izan du saihestu : begiak malkoz bete zaizkio.	88
sail atala, sekzioa	Politikako sailetik irten den zurrunbilok esnatu du.	79
sakon barruraino	...eta sakon hartzen zuen arnasa.	120
samin tristura, etsipen jarrera	Hala ere, irribarre egiten die eta honek saminaren zama arintzen die pixka bat...	10
samurtasun biguntasuna, eztitasuna	Samurtasun berdinez laztantzen zion gauero kopeta...	30
sarraila irekitzeko-ixteko mekanismoa	...giltza sarrailan sartzeko txanda...	19
sastada ziztada	Hitz egiten hasten zen bakoitzean sastada zorrotz bat sentitzen zuen.	23
suertatu egokitu, gertatu, agitu	Bat-batean mundu berri batean bizitzea suertatu zaio eta ez ditu hango legeak ezagutzen.	83
sugar garra, lama	Eszedentzia hitza entzutean, sugarra piztu dio sabelean eta haserre begiratu dio.	54
sumatu igarri, barruntatu, suposatu	Ezin ditu ahaztu medikuaren hitzak: aurretik jakin izan bagenu... Berak sumatzen zuen aurretik zerbait, baina ez zuen ezer esan.	57
tamalgarri negargarria, penagarria	Ama bakarrik bizi dela senarra hil zitzaionetik, eta hori bai dela tamalgarria ...	29
tenkatu tiratu, zurrundu	Tximurtuta dauka Maitek bekokia. Barruko hari batek azala tenkatuko balio bezala.	72
trapu sorkia	... trapua gogoz bota du mahai gainera...	120
tregoa su-etena	...minaren ondoko barealdiak eskainitako tregoa baizik, arnasa hartzeko atsedena.	101
tupust egin behaztopatu	...ospitaleko gelan sartzean, tupust egin du izekorekin.	145
txilio egin oihu egin, irrintzi egin	Dantza edo txilio egiten hasi beharrean, barra ondoko eserlekuetan eserita geratzea...	21
tximurtua zimurrez	...irribarrez badago ere, tximurtua du kopeta...	125
txintik ere tutik ere, hiztxo bat ere	Ama kalean aurkitu zuenetik ez baitu txintik ere esan.	32



txirikorda ile-korda, ile-txorta	Ile luzea du, iluna, txirikorda batean lotua.	61
txopin litro-erdia	Herriko gizon asko joaten zen bertara etxetik hartutako meriendatxoa eskuetan, txopin bat ardo edatera...	59
ugazaba jabea, nagusia	Karlos desagertu zenetik bere ugazabaz galdetu zion bakarra.	140
uhal hedea, larruzkoa-edo	Karlosen osabak tiraka egiten ziolako uhaletik .	140
ukendu pomada	Zein onak diren Nereak izekorekin egiten dituen barreak. Baltsamua da berarentzat izeko. Zaurien ukendua .	42
xuxurlatu ahapeka mintzatu, murmurikatu	Eta, eskua ahora eramanda, ziurrenik laster hilko zela xuxurlatu ziola kontatzen du izekok.	60
zakar bortitz, lakar, finezia barik	...hainbat egoera etorri zaizkio Nereari burura, eta denetan ikusi du bere burua zakar erantzunez, gogo barik, eta horrek minegin dio.	68
zama karga, pisua	Gauetik egunera ama alaba bihurtu zaiola sentitu du eta burua zentimetro batzuk jaitsi zaio, hain da astuna lepo gainean sentitzen duen zama .	57
zaplazteko belarrondokoa, txaloa	Olatu baten zaplaztekoa sentitu zuen masailean German ikustean...	109
zapuztu hondatu, defraudatu	...gu ez gara inor Luisaren ametsa zapuzteko .	136
zimeldu ihartzen hasi, freskotasuna galdu	...hilabete itsasertzera inguratu gabe egon ondoren. Lore zimelduen antza hartu zuen.	86
zintzilikatu eskegi	Haren atzeko aldean irrati zahar bat ikusten da, paretan zintzilikatutako burruntzali eta kazolen ondean.	60
zirikatzaile zirikalaria	...kazetari zirikatzaile horietako batena...	120
zirkinik ez mugimendu txikirik ere ez	Hankan bat-batean gelditu zaizkio eta zirkinik egin gabe geratu da kalearen erdian...	13
zirrikitu zuloa, tartea	Ospitalea bezain zuria den paretan argi izpi bat sartu da zirrikitu estu batetik.	47
zurbil margula, zuri-zuria, kolorgea	Zain dauden pertsona gehienek aurpegi zurbilak dituzte, ospitalean bezala...	37
zurrunbilo nahastea	Politikako sailetik irten den zurrunbiloak esnatu du. Zerbait gertatu da. Zerbait larria.	79
zurrutada tragoa, hurrupa	Gosariko kafesnari zurrutada bat eman eta atzetik agertu zaio izeko.	62